

## “Euskal Herriko udalerririk euskaldunenetan 289 mediku eta pediatra daude, eta 73 ez dira gai euskaraz aritzeko. Lautik bat”

### Josu Labaka, UEMAKo lehendakaria

---

UEMAren lurgunea biztanleen %70a baino gehiago euskalduna duten Gipuzkoako 40 udalerririk, Bizkaiko 22k, Arabako batek eta Nafarroako 13k osatzen dute. Guztira 230.000 biztanle inguruko lurgunea da. Euskararen arnaguneak dira herri hauek, herririk euskaldunenak direlako eta euskaraz modu naturalean aritzen direlako bertako herritarrek.

Hala ere, urte askoan eman dugu UEMAKo herritarrek medikuarekin euskaraz egiteko duten zailtasunen berri. Dena den, aldaketak aldaketa eta ahaleginak ahalegin, bere horretan irauten du arazoak. Hori dela-eta, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zein Nafarroako osasun etxeetako profesionalen hizkuntza-gaitasunen azterketa egin du UEMAK. Horretarako, Osakidetzako zein Osasunbideko plantillak begiratu ditugu, eta udalerriz udalerriz hitz egin dugu euskara teknikari, politikari, anbulatorioetako langile edo herritarrekin.

UEMAren eremuan, 85 mediku eta pediatra daude hizkuntza eskakizunik gabe edo dagokien mailako ziurtagiririk gabe. **Mankomunitateko 76 udalerrietatik 45 udalerriri eragiten die egoera horrek.** Osakidetzaren esparruko 48 familia medikuk eta 13 pediatrik ez dute dagokien maila. Osasunbideari begira, euskara merezimendu gisa dago ia lanpostu guztietan, eta UEMAKo udalerrietan 18 familia edo larrialdi mediku eta 6 pediatra daude inongo ziurtagiririk gabe. **Euskaraz aritzeko gai ez direnak kontuan hartuta, datu orokorrak argiak dira: guztira, 289 pediatra, familia eta larrialdi mediku daude UEMAKo herrietan, eta horietatik 73 ez dira gai euskaraz aritzeko. %25. Lautik bat, alegia.** Familia eta larrialdi medikuen artean, 233tik 53 dira euskaraz aritzeko gai ez direnak: %22. Pediatren kasuan, berriz, 56tik 20 ez dira gai euskaraz aritzeko: %35.

Era berean, badira hizkuntza eskakizuna izan arren, herritarrekin euskaraz komunikatzeko gai ez diren profesionalak ere. Dimako eta Munitibarko sendagileen kasua da hori, baita Bera, Etxalar, Igantzi eta Arantzak konpartitzen duten pediatararena ere. Alderantzizko egoera ere gertatzen da, zenbait mediku euskaraz ulertzeko edota komunikatzeko gai dira hizkuntza eskakizuna ez izan arren: Bergaran, Elgetan, Adunan, Amezketan, Ondarroan, Iruran, Lizartzan, Usurbilen, Baztanen eta Etxalarren badira halako kasuak. Beraz, ikusi dugu, faktore horiek kontuan hartuta, euskaraz egiteko gai ez diren 73 profesional daudela

UEMAko udalerrietan. 53 familia eta larrialdietako mediku daude: 45 Araba, Bizkaian eta Gipuzkoan eta 8 Nafarroan. Pediatren kasuan, 20 dira euskaraz aritzeko gai ez direnak: 13 Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta 7 Nafarroan.

## Eneka Maiz, Etxarri-Aranazko alkatea eta UEMAko zuzendaritza batzordeko kidea

---

Halako azken azterketa 2013an egin genuen, eta zentro batzuetan egoerak hobera egin badu ere, besteetan okerrera egin du edo bere horretan irauten du. Joera orokorra onerakoa bada ere, oraindik lan asko dago egiteko osasungintzaren alorrean. Mankomunitateko hainbat anbulatoriotan urratsak egin dituzte, eta hizkuntza eskakizuna dute mediku zein pediatra guztiek; hori da arnagune guztietarako nahi genukeen egoera. Azken urteetan zerbitzua euskaraz eskaintzeko pausoak eman dituzte honako udalerrietako osasun etxeetan ere: Ajangiz, Bermeo, Oiartzun, Otxandio, Zarautz edo Zumaia. Bestalde, egoerak okerrera egin du hainbat udalerritan. Tolosan, Ondarroako larrialdi zerbitzuetan eta Oñatin, besteak beste. Udalerrri horietan, hiru urtean areagotu egin da hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe duten sendagileen kopurua.

Udalerrri batzuetan, bereziki larria da egoera. Izan ere, **sendagile edo pediatra guztiak dira euskaraz egiten ez dutenak**. Horrek esan nahi du herri horietako bizilagunak behartuta daudela gaztelaniaz hitz egitera medikuarekin. Mallabian, familia mediku bat dute, eta berak ez du hizkuntza eskakizuna egiaztatuta, gauza bera gertatzen da Markina-Xemeinen, pediatrarekin. Kasu berean daude Deba, Aramaio, Oñati eta Bergara. Ildo beretik, Goizuetako, Leitzako eta Aresoko umeek ere pediatra bat konpartitzen dute, eta ez da euskalduna. Legorretan, Orendainen eta Alegian partekatzen duten pediatrarekin ere gauza bera gertatzen da.

Nafarroako arnaguneetako egoerari bereziki erreparatu behar zaio. Basaburuan eta Baztanen ez dute pediatra euskaldunik. Gainera, Bortzirietako larrialdi zerbitzuetako profesionalekin ezin da euskaraz aritu. Kasu horretan, hiru sendagileetatik bik dute hizkuntza eskakizuna zehaztuta, baina bakar batek ere ez du aterata.

Bestalde, Nafarroaren kasuan, gobernuak eskualdez eskualde kokatzen ditu sendagile euskaldunak. Hori dela-eta, bizilagunak kexu dira, horrek ez duelako bermatzen beraien haurrek eta familiakoek sendagile euskalduna izatea. Horri gehitu behar zaio Nafarroako gobernuak 100 lanpostu berri inguru atera dituela lehiaketa publikora, eta haietatik hamabi soilik direla hizkuntza eskakizuna dutenak. Nafarroan, gainera, bereziki arazoa dute emakumeen arretarako zentroetan, emaginekin eta ginekologoekin. Zentro horietan ez dira

inolaz ere errespetatzen herritar euskaldunen hizkuntza eskubideak, eta behin baino gehiagotan eskaera zehatzak egin badira ere, ez da aurrerapausorik eman.

## **Ordezkapenak eta joan-etorriak**

Udako ordezkapenak egiterakoan, euskaraz ez dakiten medikuak jarri dituzte zentro askotan, mediku euskaldunen ordezkariak. Azpeitia, Aulesti eta Segurako udalek salatu zuten egoera, uda hasieran, baina dozenaka udaletan gertatu da.

Ziurgabetasuna ere sortzen du egoerak. Izan ere, erretiratzear daude hainbat profesional, eta udalerrri horietako bizilagunek ez dakite haien ordezkari mediku euskaldunak izango dituzten. Basaburuako sendagilea, esaterako, jubilatzeaz da, eta kezka hori dute herrian. Hori dela-eta, **UEMATik eskatzen dugu udalerrri euskaldunetan egingo diren kontratazio berri guztietan, behintzat, profesional euskaldunak har daitezten.**

## **Josu Labaka**

---

Urteak joan eta urteak etorri jarraitzen dugu esaten ezinbestekoa dela osasungintzako zerbitzua euskaraz bermatzea. Datuek ikusarazten dutenez, UEMAko udalerrietako osasun etxe publiko askotan ez da errespetatzen herritarrek euskaraz aritzeko duten eskubidea. Hobekuntzak izan badira ere, udalerrri batzuetan egoera larria da oraindik. Hori dela-eta, beste behin, lankidetzarako proposamena egiten diogu Osakidetzari eta Osasunbideari, egoera hobetzeko urratsak egin ditzagun. Beste behin ere, bi erakunde horiei bideratu diegu dagoeneko datu hauei begira bilera bat egiteko eskaera.

Gure helburua da herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatzea, bai osasungintzako arloan, baita administrazio publikoko nahiz bizitzako gainontzeko esparruetan ere. Zerbitzuaren kalitatea eskasa izango da beti, herritarrek nahi duen hizkuntza ofiziala hautatzeko bermerik ez badu. UEMAko udalerriek baldintza bereziak dituzte, gainera, herritarren %70k baino gehiagok dakielako euskaraz. Horregatik sinisten dugu bide-urratzaileak izan behar dugula udalerrri hauek euskararen normalizazioan, eta beharrezkoa dela gure herrietan neurri aurrerakoiak hartzea. Osasungintza, jakina, ez da salbuespena. Normalizazioari epea jartzeko ordua da, behingoz benetako erabakiak eta neurriak hartuta. UEMAk eta UEMAko udalek ahalegin handia egin dugu herri euskaldunetako udalek euskaraz funtziona dezaten. Euskararen arnasmuneetan beren zerbitzuak eskaintzen dituzten gainerako administrazio publikoei ere ahalegin berbera eskatzen diegu. Ez da

borondate kontua, gainera. Betebeharra baizik. Administrazio publikoak legez dauka zerbitzuak euskaraz eskaintzeko betebeharra.

Donostian, 2016ko urriaren 14an